

Amets Zubizarreta Etxaniz

E maila • 2 saria

Ni Amets Zubizarreta Etxaniz naiz eta 10 urte ditut. Beasaindarra naiz. Kirola egitea asko gustatzen zait. Irakurtzea eta idaztea gustuko ditut eta bertsotan ere jarduten naiz. Musika ere asko gustatzen zait. Asko poztu nintzen idazlan lehiaketan nire bertsoak 2. saria lortu zuela esan zidatenean. Ea gustatzen zaizuen bertsoa!



Doinua: Badira hiru aste

GORPUTZA HEMEN, BIHOTZA HAN

Egun batean etorri nintzen
txalupa baten sartuta
ez ziren gurasoak etorri,
utzi zuten adostuta
janari pixkat izango banu
edozeinek lagunduta
ziur sentitu naitekeela
apurtxo bat babestuta

Nire herrian beti geneukan
lasaitasun ta pakea
baina tankeak etorri eta
bota zidaten etxea
utzi nituen lagunak eta
buka zitzaigun zortea,
orduz geroztik gaixorik dago
gure lurralde maitea